

AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA

4

ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Lan eta Gizarte Segurantzako
Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkariarena, 2019-2025 urteetarako Gipuzkoako enpresa transitarioen hitzarmen kolektiboaren erregistro, gordailu eta argitarapena agintzen duena (kodea 20001495011990).

AURREKARIAK

Lehenengoa. 2023ko martxoaren 16an sinatu zuten aipatu-tako hitzarmen kolektiboa ATEIA Gipuzkoa-OLT-k enpresen izenean, eta ELA, CC.OO., LAB eta UGT sindikatuek, langileen izenean.

Bigarrena. 2023ko martxoaren 23an aurkeztu zen Lurralde Ordezkaritza honetan, adierazitako hitzarmenaren erregistro, gordailu eta argitalpen eskaera.

Hirugarrena. Urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren 8. artikulua aurreikusitako errekerimendua burutu (2011-02-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta 2023ko apirilaren 25ean bete da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintaritza honi dagokio, honako arautegiaren arabera: Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 14.1.g artikulua (2021-01-29ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboaren erregistro eta gordailuari buruzkoak.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak aurretik aipatutako Langileen Estatutuaren Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko, eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

Bigarrena. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Donostia, 2023ko apirilaren 26a.—Victor Monreal de la Iglesia, lurralde ordezkaria. (3053)

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Delegación Territorial de Trabajo y
Seguridad Social de Gipuzkoa

RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del convenio colectivo de empresas transitorias de Gipuzkoa para los años 2019-2025 (código 20001495011990).

ANTECEDENTES

Primero. El día 16 de marzo de 2023, se suscribió el convenio citado por ATEIA Gipuzkoa-OLT, en representación de las empresas, y ELA, CC.OO., LAB y UGT en representación de la parte trabajadora.

Segundo. El día 23 de marzo de 2023, se presentó en esta Delegación Territorial solicitud de registro, depósito y publicación del referido convenio.

Tercero. Se ha efectuado el requerimiento previsto en el artículo 8 del Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-02-2011), y se ha cumplimentado el 25 de abril de 2023.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero. La competencia prevista en el art. 90.2 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 14.1.g del Decreto 7/2021, de 19 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 29-01-2021) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Empleo, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

Segundo. El convenio colectivo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO

Primero. Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

Segundo. Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 26 de abril de 2023.—El delegado territorial, Victor Monreal de la Iglesia. (3053)

Gipuzkoako enpresa garraio-kudeatzaileen hitzarmen probintziala 2019 / 2025.

I. KAPITULUA

1. artikulua. Lurralde-eremua.

Hitzarmen hau enpresa hauek bete behar dute: Gipuzkoako probintzian kokaturiko enpresa garraio-kudeatzaile guztiek, baita helbide soziala beste punturen batean izanik, establezimenduak, zentroak edo sukurtsalak aipatutako probintzian dituztenek ere, beraietara atxikitako langileei dagokienez, hitzarmen onuragarriagoa denean izan ezik.

2. artikulua. Funtzio-eremua.

Hitzarmen hau enpresa hauei aplikatuko zaie: soil-soilik edo jarduera nagusi izanik, nazioarteko garraioak antolatzen lan egiten duten enpresei, edota aduanak iragateko erregimenean egiten diren garraioak antolatzen dituztenei. Jarduera horietarako administrazio-habilitazioa izan beharko dute. Hauek dira, hain zuzen, jarduera horiek:

Norberaren izenean garraiolariekin garraio bat kargatzaile gisa kontratatzea, beraiek norberaren izenean benetako kargatzailearekin kontratatu dutena, haren aurrean garraiolariaren funtzioa betez.

Kontsignatario gisa beraiei bidalitako salgaiak hartzea eta kargatzaileak izendatutako garraiolariaren eskura jartzea.

3. artikulua. Langile-eremua.

Hitzarmenaren eraginpeko enpresetan zerbitzuak egiten dituen langile orori aplikatuko zaio hitzarmena, baita hitzarmenaren indarraldian enpresa horietan sartzen den orori, eta hitzarmenetik kanpo geratuko dira soil-soilik sozietatearen forma juridikoa duten enpresetan kontseilari-karguarenak diren jarduerak.

Hitzarmen honetan jasotzen diren xedapenak ez dira aplikagarriak izango gaur egun hitzarmen onuragarriagoa duten enpresetako langileei, eta testu honen aplikaziotik kanpo geratuko dira, baldin eta enpresa horietako hitzarmeneko testukoak onuragarriagoak badira.

Hitzarmen honek gutxieneko izaera du, eta aukera ematen du langileen baldintzak hobetzen dituen edozein arlotako itunak egiteko.

4. artikulua. Indarraldia.

Hitzarmen honen indarraldia 2019ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra artekoa izango da.

Hitzarmen honen amaiera 2025eko urriaren 1ean iragarriko da automatikoki ondorio guztietarako. Enpresaren ordezkariak eta langileen ordezkariak konpromisoa hartu dute data horretatik aurrera hitzarmen berri baten negoziazioak hasteko.

Berariaz erabaki da, Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, amaiera iragarri eta itundutako iraupena amaitu ostean, hitzarmenak indarrean jarraituko du mugarik gabe, harik eta bi alderdiek hura ordeztuko duen beste bat sinatu arte.

II. KAPITULUA

5. artikulua. Soldatak.

Hitzarmen kolektibo hau indarrean dagoen bitartean, honako goiera hauek egingo dira, hitzarmen honetan aurreikusitako ordainsari-kontzeptu guztietan aplikatzeko, eskuragarritasun-osagarriko aurreikusitakoa salbu:

- 2019. urtea: % 1,2. (2018ko estatuko KPIa).
- 2020. urtea: % 0,8. (2019ko estatuko KPIa).

Convenio provincial de empresas transitarias de Gipuzkoa 2019 / 2025.

CAPÍTULO I

Artículo 1.º Ámbito territorial.

El presente Convenio obliga a todas las empresas de Transitorios establecidas en la Provincia de Gipuzkoa y a las que contando con domicilio social en otro punto, tengan establecimientos, centros o sucursales en dicha Provincia, en cuanto al personal adscrito a ellos, salvo Convenio más favorable.

Artículo 2.º Ámbito funcional.

El Convenio obliga a todas las empresas que se dedican única y exclusivamente o con carácter de actividad principal, a organizadores de los transportes internacionales y en todo caso de aquellos que efectúen en régimen de tránsito aduanero, actividades para las que deberán estar habilitados mediante autorización administrativa, siendo dichas actividades las siguientes:

Contratación en nombre propio con el transportista, como cargadores de un transporte que a su vez hayan contratado, asimismo en nombre propio, con el cargador efectivo, ocupando frente a éste, la función de transportista.

La recepción y puesta a disposición del transportista designado por el cargador, de las mercancías a ellos remitidas como consignatarios.

Artículo 3.º Ámbito personal.

El Convenio será de aplicación a todo el personal que preste sus servicios en las empresas afectadas por él y a todo aquel que ingrese durante la vigencia del mismo, quedando excluidas únicamente las actividades que se limitan pura y simplemente al desempeño del cargo de Consejero en las empresas que revistan la forma jurídica de Sociedad.

Las disposiciones contenidas en el presente Convenio, no serán de aplicación al personal de aquellas Empresas que en la actualidad les estén aplicando un Convenio más favorable, quedando expresamente excluidas de la aplicación del presente texto, en tanto en cuanto siga siendo menos favorable que aquél, por el que se rigen.

El presente Convenio tiene carácter de mínimos, dejando la posibilidad a pactos de cualquier ámbito en los que se mejoren las condiciones de los trabajadores.

Artículo 4.º Ámbito temporal.

La vigencia del presente Convenio se extenderá desde el día 01-01-2019 y 31-12-2025.

Este Convenio se entenderá denunciado automáticamente a todos los efectos el 1 de octubre del 2025, fecha en que las partes económicas y sociales se comprometen a iniciar la negociación de un nuevo Convenio.

Se acuerda expresamente, a los efectos de lo dispuesto en art. 86,3 ET, que una vez denunciado y concluida la duración pactada, se mantendrá la vigencia del convenio indefinidamente hasta la suscripción por ambas partes de otro que lo sustituya.

CAPÍTULO II

Artículo 5.º Salarios.

Durante el período de vigencia del presente Convenio Colectivo se realizarán los siguientes incrementos que resultarán de aplicación a todos los conceptos retributivos previstos en este convenio, con la salvedad de lo previsto para el complemento de disponibilidad:

- Año 2019: 1,2 %. (IPC 2018 estatal).
- Año 2020: 0,8 %. (IPC 2019 estatal).

- 2021. urtea: % 0,00. (2020ko estatuko KPI negatiboa).
- 2022. urtea: % 4.
- 2023. urtea: % 4.
- 2024. urtea: % 2,10 + 2023ko estatuko KPIa.
- 2025. urtea: % 2,10 + 2024ko estatuko KPIa.

Artikulu honetan aipatutako KPIarekin berrikusten diren sol-datek ezingo dute murrizketarik sortu.

Artikulu honetan KPlari egotzitako balioa ezingo da inoiz ere izan % 0,00 baino txikiagoa; beraz, urteko KPIa negatiboa bada, % 0,00ko balio minimo hori hartuta kalkulatu da soldata-igoera.

Enpresa transitarioetako langileek 2019, 2020, 2021, 2022 eta 2023rako jaso behar dituzten gutxieneko soldatak hitzarmen honen I. eranskinean (2019), II. eranskinean (2020-2021), III. eranskinean (2022) eta IV. eranskinean (2023) jasotzen dira, hurrenez hurren. Bestalde, 2024 eta 2025eko ordainsarien taula hitzarmenaren interpretazio-batzorde mistoak ezarriko du, 2023 eta 2024ko KPlaren datua argitaratzen denean.

2019, 2020, 2021 eta 2022ko igoerak aplikatzearen ziozko atzerapenak gehienez ere bi hilabeteko epean ordainduko dira, hitzarmena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6. artikulua. Aparteko haborokinak.

Hitzarmen honek bere baitan hartzen dituen langile guztiek lau haborokin jasoko dituzte urtero. Haborokin horiek martxoko, ekaineko eta iraileko azken egunean ordainduko dira. Gabonetako haborokina abenduaren 22a baino lehen ordainduko da. Soldata errealdaren pareko hileko soldata ordainduko da.

Aparteko haborokinen sortzapen-aldia hiru hilekoa izango da. Lanean hasten diren langileek edo lana uzten dutenek, haborokinak sortzen diren hiruhilekoan zenbat lan egiten duten, denbora horren zati proportzionala jasoko dute. Gainerako haborokinak osorik jasoko dituzte, baldin eta haborokin horiek sortzen diren hiruhilekoetan lan egiten badute.

7. artikulua. Antzinasuna.

Antzinasun-osagarri gisa, hirurtekoak ezarri dira. Hitzarmen honen I., II., III. eta IV. eranskinetan agertzen da zer zenbateko dagokion lanbide-kategoria bakoitzari.

Hirurteko bakoitza betetzen den hilabete naturaleko lehen egunetik hasita sortuko dira hirurtekoak, eta langilea enpresan sartzen den egunetik hasiko dira zenbatzen.

Nolanahi ere, «ad personam» errespetatuko dira antzinasunari dagokionez langileek gaur egun dituzten baldintza hobeak.

8. artikulua. Dietak eta kilometrajea.

Enpresako Zuzendaritzaren erabakiz eginiko lekualdaketa baten ordainetan, langile batek zenbateko hau jasoko du janari edo afariengatik dietaren kontzeptupean:

- 2019: 12,8441 €.
- 2020-2021: 12,9469 €.
- 2022: 13,4647 €.
- 2023: 14,0033 €.

Kilometrajearen kontzeptupean, enpresak zenbateko hauek ordainduko ditu kilometro bakoitzeko lanerako soil-soilik eginiko joan-etorriengatik, langileak bere ibilgailua erabiltzen duenean:

- 2019: 0,2952 €.
- 2020-2021: 0,2976 €.
- 2022: 0,3095 €.
- 2023: 0,3218 €.

- Año 2021: 0,00 %. (IPC 2020 estatal negativo).
- Año 2022: 4 %.
- Año 2023: 4 %.
- Año 2024: 2,10 % + IPC 2023 estatal.
- Año 2025: 2,10 % + IPC 2024 estatal.

La revisión de salarios con referencia al IPC que contiene el presente artículo en ningún caso podrá suponer una merma salarial.

El valor del IPC que contempla este artículo en ningún caso podrá ser inferior al 0,00 %, por lo que si el IPC anual resultase negativo, se partirá, a efectos del cálculo de dicho incremento, de ese valor mínimo del 0,00 %.

Los salarios mínimos que corresponde percibir a las y los trabajadores de las empresas Transitorias para los años 2019, 2020, 2021, 2022 y 2023 se recogen en los anexos I (2019), II (2020-2021), III (2022) y IV (2023) respectivamente, del presente Convenio y la tabla retributiva de los años 2024 y 2025 se establecerán por la Comisión mixta Interpretativa del convenio cuando se publique el dato del IPC de los años 2023 y 2024.

Los atrasos derivados de la aplicación de los incrementos pertenecientes a los años 2019, 2020, 2021 y 2022 se abonarán en el plazo máximo de dos meses, a partir del día siguiente a la publicación del convenio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Artículo 6.º Gratificaciones extraordinarias.

Todo el personal afectado por el Convenio, percibirá anualmente cuatro gratificaciones que serán abonadas el último día hábil de los meses de marzo, junio y septiembre. La de Navidad se abonará antes del 22 de diciembre. Se abonarán por un importe igual a una mensualidad de salario real.

El cómputo de las gratificaciones extraordinarias, será trimestral. Así, el personal que ingrese o cese, percibirá la parte proporcional al tiempo trabajado del trimestre en que se devenguen las pagas. Percibiendo la totalidad de las restantes, si trabaja en los trimestres que se devengan.

Artículo 7.º Antigüedad.

Como complemento de antigüedad, se fijan trienios que para categoría profesional tendrán la cuantía que figura en los anexos I, II, III y IV del presente texto.

Los trienios se devengarán a partir del primer día del mes natural en que se cumpla cada trienio, computándose los mismos desde la fecha de ingreso del trabajador en la empresa.

Se respetarán en todo caso «ad personam» las condiciones más beneficiosas, que en este aspecto pudieran existir en la actualidad.

Artículo 8.º Dietas y kilometrajes.

El importe que el trabajador percibirá en concepto de dieta por comida o cena con ocasión de un desplazamiento efectuado por decisión de la Dirección de la Empresa será en.

- 2019: 12,8441 €.
- 2020-2021: 12,9469 €.
- 2022: 13,4647 €.
- 2023: 14,0033 €.

En concepto de kilometraje, la empresa abonará las siguientes cantidades por kilómetro en los desplazamientos de carácter exclusivamente laboral, cuando el conductor utilice vehículo de su propiedad.

- 2019: 0,2952 €.
- 2020-2021: 0,2976 €.
- 2022: 0,3095 €.
- 2023: 0,3218 €.

Nolanahi ere, «ad personam» errespetatuko dira arlo horri dakionez gaur egun egon litezkeen baldintza hobeak.

9. artikulua. Eskuragarritasun-Osagarria.

Enpresak izendatu dituen eta beren borondatez eskuragarritasun-egoeran egotea onartzen duten langileek, hots, beren ohiko ordutegitik kanpo bezeroei arreta eman edo edozein gorabehera ebazteko lan egiteko prest daudenak telefono mugikorraren bidez, konpentsazio moduan osagarri bat jasotzeko eskubidea izango dute.

Osagarri hori ez zaie batuko arrazoi horren zioz lehendik ezarrita egon ahal diren osagarri edo plusei. Era berean, ezingo da xurgatu edo konpentsatu; lehendik ezarrita dauden eta hitzarmen honetan adostutakoa hobetzen duten baldintza onenak mantendu beharko dira.

Osagarri honen balioa honako hau izango da 2023, 2024 eta 2025erako:

— 2023. urtea. Hilean 50,00 euroko osagarria. Osagarria hitzarmena argitaratzen denetik aurrera hasiko da ordaintzen.

— 2024. urtea. Hilean 50,00 euroko osagarria 2023ko estatuko KPlaren arabera igoko da.

— 2025. urtea. 2024ko zenbatekoa 2024ko estatuko KPlaren arabera igoko da.

Hitzarmenaren interpretazio-batzorde mistoak zenbateko horiek finkatuko ditu, urte bakoitzerako ordainsari-taularekin batera, 2023ko eta 2024ko KPlaren datua argitaratzen denean. Hitzarmen honen indarraldia amaitzen denetik aurrera, osagarri hori beste ordainsari-kontzeptu bat gehiago bailitzan sartuko da bertan.

III. KAPITULUA

10. artikulua. Lanaldia.

Hitzarmen honen eraginpeko urteko gehieneko lanaldia 1.686 ordukoa izango da.

Larunbatetan, lanaldia 12:00ak arte izango da, gehienez ere.

Edonola ere, langileek eskubidea izango dute hiru larunbatetik bi jai egiteko.

11. artikulua. Txandakako lana.

Enpresak hala eskatuta, langileek 8:00etatik 22:00etara arteko bi txandatan egiten badute lan, urteko soldataren % 4 hileka banatuta jasoko dute, txanda-plus gisa.

Enpresak hala eskatuta eta langileekin aldeztu aurretik adostuta, langileek hiru txandatan egiten badute lan –goizez, arratsaldeztan eta gaueztan–, enpresak urteko soldataren % 15 hileka banatuta ordainduko die, txanda-plus eta gaueko plus gisa.

12. artikulua. Gaueko lana.

Enpresak langile berriak kontratatzen baditu ohiko txanda gisa gauez lan egiteko, langile horiei urteko soldataren % 30 hileka banatuta ordaindu beharko die, gaueko plus gisa.

Ohiz kanpoko egoeretan eta langileekin adostu eta gero, langileek 22:00etatik 8:00etara egin behar badute lanaldi osoa edo zati bat, gaueko plusa jasoko dute. Zehazki, zenbateko hauek jasoko dituzte, modu honetara:

— Gaueko lanaldia 3 orduko beherakoa bada, gaueko lanaren ordaintan zenbateko hauek jasoko ditu langileak:

2019: 9,58 €/egun.

2020-2021: 9,66 €/egun.

Se respetarán en todo caso «ad personam», las condiciones más beneficiosas, que en este aspecto pudieran existir en la actualidad.

Artículo 9.º Complemento de disponibilidad.

Los trabajadores/as designados por la empresa, que voluntariamente acepten estar en situación de disponibilidad localizables mediante teléfono móvil para prestar trabajo efectivo de resolución de cualquier incidencia o atención a clientes fuera del horario habitual, tendrán derecho a un complemento de compensación.

Este complemento no se sumará a posibles complementos o pluses que por este motivo pudiesen estar ya establecidos. Así mismo no podrá ser absorbido o compensado, debiéndose mantener las condiciones más beneficiosas que pudieran estar ya establecidas y que mejoran lo acordado en este convenio.

El valor de este complemento para los años 2023, 2024 y 2025, será:

— Año 2023. Complemento de 50,00 euros/mensuales. El complemento comenzará a abonarse a partir de la publicación del convenio.

— Año 2024. El complemento de 50,00 euros/mensuales se incrementará en el IPC 2023 estatal.

— Año 2025. La cuantía correspondiente al 2024 se incrementará en el IPC 2024 estatal.

La Comisión mixta Interpretativa del convenio fijará dichas cuantías junto con la tabla retributiva para cada año cuando se publique el dato del IPC de los años 2023 y 2024. Quedando este complemento incorporado, a partir de la finalización de la vigencia del presente convenio, como un concepto retributivo más en el mismo.

CAPÍTULO III

Artículo 10.º Jornada laboral.

La jornada laboral máxima en cómputo anual será de 1.686 horas.

La jornada de trabajo de los sábados se realizará como máximo hasta las 12:00 horas.

En todo caso, el personal tendrá derecho a librar dos sábados por cada tres.

Artículo 11.º Turnicidad.

Cuando a requerimiento de la empresa, los trabajadores realicen su jornada a relevos en dos turnos entre las 8:00 y las 22:00 horas, los trabajadores afectados percibirán en concepto de plus de turnos un 4 por ciento del salario anual mensualizado.

Cuando a requerimiento de la empresa, previo acuerdo con los trabajadores afectados estos, realicen su trabajo en tres turnos de mañana, tarde y noche, la empresa abonará en concepto de plus de turnicidad y nocturnidad, un 15 % del salario anual mensualizado a cada trabajador afectado.

Artículo 12.º Nocturnidad.

Cuando la empresa contrate nuevo personal para trabajar de forma habitual en turno de noche, deberá abonar al trabajador afectado, un plus de nocturnidad del 30 % del salario anual mensualizado.

Cuando por circunstancias extraordinarias de la empresa, previo acuerdo con los trabajadores, estos deban de realizar parte o la totalidad de la jornada ordinaria, entre las 22:00 y las 8:00 horas, el abono de la nocturnidad se realizará de la siguiente forma y con las siguientes cuantías:

— Cuando el trabajador no supere en jornada nocturna 3 horas, percibirá en compensación nocturna:

2019: 9,58 €/día.

2020-2021: 9,66 €/día.

2022: 10,05 €/egun.

2023: 10,45 €/egun.

— Gaueko lanaldia 3 orduetik gorakoa bada, gaueko lanaren ordainetan zenbateko hauek jasoko ditu langileak:

2019: 31,94 €/egun.

2020-2021: 32,19 €/egun.

2022: 33,48 €/egun.

2023: 34,82 €/egun.

13. artikulua. Jaieguna.

Eusko Jaurilaritzak Euskal Autonomia Erkidegorako ezarritako lan-egutegiko jaiez gain, egun hauek ere jai izango dira egun erdiz: ekainaren 29a eta abenduaren 24 eta 31.

Hitzarmen honek bere baitan hartzen dituen langileek 3 jaieguna izango dituzte urtean, «norberaren kontuetarako», lege ezarritako eta hitzarmenaren 14. artikuluan ezarritako jaiegunez gain.

Enpresako Zuzendaritzak eta langileek adostuko dute egun horiek noiz erabili.

14. artikulua. Oporrak.

Hitzarmen honek bere baitan hartzen dituen langile guztiek 28 laneguneko oporraldi ordaindua izango dute urtean. Larunbatik laneguntzat hartuko dira, baldin eta 14 jaiegunetakoren bat ez badira.

Oporrak bi alditan hartuko dira, gehienez ere, baldin eta aldean artean bestelako akordioak ez badago.

Nolanahi ere, «ad personam» errespetatuko dira opor-egunen kopuruari dagokionez langileek gaur egun dituzten baldintza horiek.

15. artikulua. Ordaindutako lizentziak.

Langileek eskubidea izango dute ordaindutako baimen hauek izateko:

- a) Langilea ezkontzen bada: 18 egun natural.
- b) Gurasoak, seme-alabak eta neba-arrebak ezkontzen badira: egun natural 1.
- c) Emaztearen erditzeagatik: 2 egun natural; baimena 5 egunetara luza daiteke, baldin eta 150 km baino urrunago badago.
- d) Ezkontidearen heriotzagatik: 5 egun natural.
- e) Ezkontidearen gaixotasun larriagatik: 2 egun, baimena 5 egunetara luza daiteke, azkenekoak soldatarik gabe.
- f) Guraso, seme-alaba edo neba-arreben heriotzagatik: ordaindutako 2 egun; baimena 5 egunetara luza daiteke, baldin eta 150 km baino urrunago badago. Ezkon-ahaideen heriotzagatik ere emango da baimen hori.
- g) Gurasoak, seme-alabak, edo neba-arrebak larri gaixotzen badira: 2 egun; baimena 5 egunetara luza daiteke, azkenekoak soldatarik gabe. Ezkon-ahaideak larri gaixotuz gero ere emango da baimen hori.
- h) Aitona-amonen edo biloben heriotzagatik: 2 egun. Ezkon-ahaideak larri gaixotuz gero ere emango da baimen hori.
- i) Etxebizitzaz aldatzeagatik: egun 1.
- j) Norberaren agiri publikoak izapidetzeko behar adina denbora.

Ezkontuta ez egon arren urtebetetik gora elkarrekin bizi izan eta udalak emandako ziurtagiriaren bidez hori hala dela egiaztatzen duten bikoteek ere dagozkien baimen ordainduak jaso ahal izango dituzte.

2022: 10,05 €/día.

2023: 10,45 €/día.

— Cuando el trabajador supere las tres horas en jornada nocturna percibirá en compensación nocturna:

2019: 31,94 €/día.

2020-2021: 32,19 €/día.

2022: 33,48 €/día.

2023: 34,82 €/día.

Artículo 13.º Festivos.

Además de las fiestas que se establecen en el calendario laboral elaborado por el Gobierno Vasco para la Comunidad Autónoma, se vacarán los siguientes medios días: 29 de junio, 24 y 31 de diciembre.

Los trabajadores sujetos al presente Convenio, dispondrán de 3 días festivos al año, en concepto de «asuntos propios», independientemente de los establecidos legalmente y de los previstos en el artículo 14.º del presente Convenio.

El disfrute de dichos días se establecerá de mutuo acuerdo entre la Dirección de la Empresa y los trabajadores.

Artículo 14.º Vacaciones.

Se establece para todo el personal afectado por el presente Convenio, un período de disfrute de vacaciones anuales retribuidas, de 28 días laborables. A tales efectos se considerarán los sábados como laborables, siempre que no coincidan con alguno de los 14 festivos.

Su disfrute se realizará como máximo en dos periodos, salvo que medie acuerdo entre las partes.

Se respetarán en todo caso «ad personam», las condiciones más beneficiosas que en cuanto al número de días a disfrutar pudieran existir en la actualidad.

Artículo 15.º Licencias retribuidas.

Los trabajadores tendrán derecho a las licencias retribuidas siguientes:

- a) Matrimonio del trabajador: 18 días naturales.
- b) Matrimonio de padres, hijos, hermanos: 1 día natural.
- c) Alumbramiento de esposa: 2 días naturales, ampliables a 5 en caso de que la distancia sea superior a 150 kilómetros.
- d) Muerte del cónyuge: 5 días naturales.
- e) Enfermedad grave del cónyuge: 2 días, ampliables a 5, estos sin derecho a retribución.
- f) Muerte de padres, hijos o hermanos: 2 días retribuidos, ampliables a 5 en caso de que la distancia sea superior a 150 kilómetros. Se extenderá incluso a los parientes en grado de políticos.
- g) Enfermedad grave de padres, hijos o hermanos: 2 días retribuidos, ampliables a 5, estos últimos sin retribución. Se extenderá incluso a los parientes en grado de políticos.
- h) Muerte de abuelos o nietos: 2 días. Se extenderá incluso a los parientes en grado de políticos.
- i) Traslado de domicilio: 1 día.
- j) El tiempo necesario para tramitación de documentos públicos propios.

Se reconocerá el mismo derecho, al disfrute de los permisos retribuidos que les puedan corresponder, a las parejas que sin vínculo matrimonial, acrediten su convivencia por un período superior a un año y mediante el correspondiente certificado expedido por el Ayuntamiento.

16. artikulua. Edoskitzaroa.

Edoskitzaroko orduak metatu daitezke, lanegun bakoitzeko ordubate.

IV. KAPITULUA

17. artikulua. Aseguru-poliza.

Sektoreko enpresek behartu daude egokien deritzen prozeduraren bidez aseguru-poliza bat egiteko langile guztientzat. Aseguru-poliza horrek bere gain hartu beharko ditu arrisku hauek:

- 13.900,07 € edozein arrazoiengatik hilez gero.
- 13.900,07 € edozein arrazoiengatik erabateko ezintasun iraunkorra gertatuz gero.
- 13.900,07 € edozein arrazoiengatik ezintasun osoa eta iraunkorra gertatuz gero.
- 34.750,19 € lan-istripuak eragindako heriotzaren kasuan.

Nolanahi ere, «ad personam» errespetatuko dira arlo horri dagokionez langileek gaur egun dituzten baldintza hobeak.

18. artikulua. Laguntza osagarria, lan-istripuen eta gaixotasun arrunten ondorioz aldi baterako ezintasuna dutenentzat.

Hitzarmen honen eraginpeko enpresek zenbateko hauek ordainduko dizkiete langileei, Gizarte Segurantzak estaltzen duen subsidioaren osagarri:

- Gaixotasun arruntagatik edota lanetik kanpoko istripuagatik: soldata errearen % 100, bajaren hurrengo egunetik hirugarren egunera arte; % 40 laugarren eta hogeigarren egunen artean; eta % 25 hogeita batgarren egunetik aurrera.
- Lanbide-gaixotasunagatik eta lan-istripuagatik: soldata errearen % 25, bajaren hurrengo egunetik aurrera.

Osagarria jasotzen duen langileak ezingo du inoiz jaso soldata errearen % 100 baino gehiago.

19. artikulua. Azterketa medikoa.

Enpresak, osasuna aldian-aldian zaintzeko egiten dituen urteko mediku-azterketen barruan, lanari dagozkion berezko arriskuaren arabera, honako analitika osagarri hauek sartuko ditu:

- Tumoreen adierazleak.
- Ginekologia: zitologia eta mamografia.

Edonola ere, langile bakoitzak erabakiko du proba horiek egin nahi dituen. Probak Osasuna Zaintzeko Zerbitzuak zehazten dituen irizpide medikoen arabera egingo dira, adina, kolektiboa edo bestelako faktore mediko batzuk kontuan hartuta.

20. artikulua. Hizkuntzak.

Hizkuntzak ikasteko ikastaroen kostuen % 50 ordainduko dituzte enpresek. Horretarako, lehenik eta behin, langileak berak ordainduko ditu ikastaroak, eta, gero, bertaratze- eta aprobetxamendu-ziurtagiria aurkeztu beharko du. Ikastaroak lanalditik kanpo egin beharko dira.

Euskara eta Europako Ekonomia Erkidegoko hizkuntza nagusiak ikasteko soilik emango dira diru-laguntza horiek.

Langileak ez baldin badaki hizkuntzaren bat -edo bat baino gehiago- eta bere lanerako enpresak hizkuntza hori jakitea eskatzen badio, langileak behar adina ikastaro jasoko ditu enpresaren kontura, harik eta eskatutako hizkuntza ezin hobeki jakin arte.

21. artikulua. Euskara.

Probintzia-esparruko hitzarmen honi lotutako enpresek pixkaka eta premia berrien arabera jarriko dituzte bi hizkuntzetan

Artículo 16.º Lactancia:

Se permite la acumulación de las horas de lactancia, y se hará a razón de una hora por día laborable.

CAPÍTULO IV

Artículo 17.º Póliza seguro.

Se establece la obligación por parte de las empresas del sector de suscribir por el procedimiento que estimen más oportuno, una Póliza de Seguro a todos los trabajadores, que cubra los siguientes riesgos:

- 13.900,07 € en caso de muerte por cualquier contingencia.
- 13.900,07 € en caso de invalidez absoluta permanente por cualquier contingencia.
- 13.900,07 € en caso de invalidez total y permanente por cualquier contingencia.
- 34.750,19 € en caso de muerte por accidente de trabajo.

Se respetarán en todo caso «ad personam», las condiciones más beneficiosas que en este aspecto pudieran existir en la actualidad.

Artículo 18.º Complemento a la incapacidad temporal por accidente de trabajo y enfermedad común.

Las empresas afectadas por el presente Convenio abonarán a sus trabajadores los siguientes complementos al subsidio cubierto por la Seguridad Social:

- Por enfermedad común o accidente no laboral: el 100 % del salario real, desde el día siguiente al de la baja hasta el tercer día, el 40 % entre el cuarto y el vigésimo día, y el 25 % a partir del vigésimo primero.
- Por enfermedad profesional y accidente de trabajo: el 25 % del salario real desde el día siguiente al de la baja.

El trabajador que perciba el complemento no podrá percibir nunca una cantidad superior al 100 % del salario real.

Artículo 19.º Revisión médica.

La empresa dentro de los reconocimientos médicos anuales de vigilancia periódica de la salud en función de los riesgos inherentes al trabajo, incluirá la realización de las siguientes analíticas complementarias:

- Marcadores tumorales.
- Ginecología: Citología y Mamografía.

Estas pruebas serán en todo caso voluntarias para cada trabajador y se efectuarán en base a criterios médicos que, en función de la edad/colectivo u otros factores médicos, determine el servicio de Vigilancia de la Salud.

Artículo 20.º Idiomas.

Las empresas abonarán el 50 por ciento de los costes de aprendizaje de idiomas, previo pago del empleado y justificación de asistencia y aprovechamiento, siempre y cuando los cursos se realicen fuera de la jornada laboral.

Estas subvenciones estarán limitadas al euskara y los idiomas principales de los Estados de la Comunidad Económica Europea.

En el supuesto de que el trabajador no posea conocimientos de uno o varios idiomas y sea requerido por la empresa para hacer uso de ellos en el desempeño de su actividad laboral, percibirá por cuenta de la empresa, los cursillos necesarios, hasta el perfecto conocimiento de los idiomas requeridos.

Artículo 21.º Euskera.

Las empresas vinculadas al presente Convenio Provincial irán paulatinamente y conforme a sus nuevas necesidades, poniendo

enpresetako dokumentuak (soldata-orriak, gutunak, paper inprimatuak, taloiak eta abar), bai eta errotuluak eta iragarkiak ere.

22. artikulua. Laneko arropa.

Enpresak lanerako arropa egokia emango die biltegiko langileei.

V. KAPITULUA

23. artikulua. Kategorien definizioa.

— Zerbitziburua.

Norberaren ekimenez eta Zuzendaritzak agindutako arauen barnean, goi-mailako agente- eta antolaketa-eginkizunak betetzen dituen da, enpresa edo garrantzizko zentro baten egitura osatzen duten zerbitzu guztiak koordinatuz edo zerbitzu hauetako baten buru izanez.

— Tituludunak eta lizentziadunak.

Langile horiek goi-mailako titulu akademiko bat dute, eta titulazioaren berezko eginkizunak betetzen dituzte enpresan, agintea edukita edo aginterik gabe.

— Erdi-mailako tituludunak.

Langile horiek erdi-mailako titulu akademiko bat dute, eta titulazioaren berezko eginkizunak betetzen dituzte enpresan.

Administrazioko, ekoizpeneko eta merkataritzako langileak.

I) Administariak.

— Kontabilitate-saileko burua:

Langile gaitua da, botereak ditu edo ez, eta zuzenean gorago dagoen buruaren aginduak betetzen ditu -halakorik baldin badago-, eta enpresako kontabilitate- eta administrazio-zerbitzuaren ardura zuzena du. Atzerriko hizkuntza bat daki.

— Lehen mailako ofizial administraria:

Merkataritzako lanak egiteko behar diren ezaguera tekniko eta praktikoak dituzte, eta gai dira beren kabuz lan egiteko; hala nola, eskutitzak eta garraiorako merkataritza-kontratuak idazteko, estatistikak egiteko, txostenak kudeatzeko eta kontabilitate-liburuetan transkripzioak egiteko.

— Bigarren mailako ofizial administraria:

Kategoria hori duten langileek ekimen eta erantzukizun mugatua dute. Hain zuzen ere, buru baten edo lehen mailako ofizial baten mende daude -halakorik baldin badago-, eta bigarren mailako lanak egiten dituzte -lan horiek egiteko, administrazio-teknikako ezagutza orokorrak baino ez dira behar-.

— 1. mailako administrari laguntzailea:

Langile horrek ez du espezialitaterik, ez garraio-kontratuei dagokionez, ez kontabilitate- eta administrazio-tekniken ezagutza orokorrari dagokionez.

— 2. mailako administrari laguntzailea:

Kategoria honetan sartzen diren langileek beste kategorietako lanak egiten laguntzen dute, edo lan erabat mekanikoak egiten.

II) Ekoizpena.

— Inportazio- eta esportazio-saileko burua:

Langile horrek bere erantzukizun zuzenaren pean du ekoizpen-saila. Inportazio- eta esportazio-eragiketak bideratzen eta ikuskatzen ditu, eta bere kargura ditu sail horretako langileak. Egiten duen lanarekin zerikusia duten bi hizkuntza edo gehiago jakin beharko ditu.

— Lineako burua:

Langile horrek saileko buruaren aginduak jasotzen ditu, eta linea jakin batzuk ditu bere erantzukizun zuzenaren pean. Atzerrian egiten dituen lanekin zerikusia duten bi hizkuntza jakin behar ditu.

en bilingüe, la documentación existente en la misma (nóminas, cartas, papel impreso, talones, etc.) así como también los rótulos y anuncios.

Artículo 22.º Ropa de trabajo.

La empresa proveerá, a los trabajadores de Almacén, de la ropa adecuada para realizar las tareas laborales.

CAPÍTULO V

Artículo 23.º Definición de categoría.

— Jefe de servicio.

Es el que con propia iniciativa y dentro de las normas dictadas por la Dirección de la Empresa, ejerce funciones de alto mando y organización, coordinando todos los servicios de una misma empresa o centro de importancia, o estando al frente de uno de los servicios en que pueda estructurarse una empresa.

— Titulados y licenciados.

Es quien, en posesión de título académico superior, desempeña en la empresa funciones, con mando o sin él, propias de su titulación.

— Titulados de grado medio.

Es quien, en posesión de título académico de grado medio, desempeña en la empresa funciones de su titulación.

Personal administrativo, producción y comercial.

I) Administrativo.

— Jefe del Departamento de Contabilidad:

Es el empleado capacitado provisto o no de poderes que actúa a las órdenes inmediatas del jefe superior, si lo hubiere, y lleve responsabilidad directa del servicio de contabilidad y administración de la empresa. Están en conocimiento de un idioma extranjero.

— Oficial Primera Administrativo:

Son quienes, en posesión de conocimientos técnicos y prácticos necesarios para la vida mercantil, realizan trabajos que requieran propia iniciativa, tales como redacción de correspondencia o de contratos mercantiles de transportes, elaboración de estadísticas, gestión de informes, transcripción de libros de contabilidad, etc.

— Oficial Segunda Administrativo:

Pertenecen a esta categoría, el empleado que con iniciativa y responsabilidades restringidas y subordinado a un jefe u oficial de 1.ª, si lo hubiera, realiza trabajos de carácter secundario que solo exigen conocimientos generales de la técnica administrativa.

— Auxiliar Administrativo 1.ª:

Es aquel operario que carece de especialidad alguna, tanto en contratos de transporte, como de conocimientos generales de la técnica contable y administrativa.

— Auxiliar Administrativo 2.ª:

Integra esta categoría el personal que desarrolla trabajos auxiliares que faciliten lo anteriormente expuesto o que tengan un carácter puramente mecánico.

II) Producción.

— Jefe Departamento Importación - Exportación:

Es el empleado que lleva, bajo su responsabilidad directa el departamento de producción, dirigiendo y supervisando las operaciones de importación y exportación, teniendo a su cargo al personal de dicho departamento. Deberá tener conocimiento de dos idiomas o más, relacionados con el tráfico que desarrolla.

— Jefe de Línea:

Es el operario encargado, bajo su responsabilidad directa y recibiendo órdenes del Jefe de Departamento, de determinadas Líneas debiendo tener conocimiento de dos idiomas relacionados con las operaciones que desarrolla en el extranjero.

– 1. mailako ofiziala:

Merkataritzarako beharrezko ezagutza tekniko eta praktikoak dituzte, eta gai dira beren kabuz lan egiteko; hala nola, dokumentuak idazteko, garraio-kontratuak egiteko eta txostenak kudeatzeko. Hala behar izanez gero, lineako burua ordezkari dezakete. Egiten duten lanarekin zerikusia duen hizkuntza bat jakin behar dute.

– 2. mailako ofiziala:

Kategoria hori duten langileek ekimen eta erantzukizun mugatua dute. Hain zuzen ere, buru baten edo lehen mailako ofizial baten mende daude –halakorik baldin badago–, eta bigarren mailako lanak egiten dituzte –lan horiek egiteko, jardueraren ezagutza orokorrak baino ez dira behar–.

– 1. mailako ekoizpen-laguntzailea:

Kategoria honetan sartzen diren langileek beste kategorietako lanak egiten laguntzen dute, edo lan erabat mekanikoak egiten, eta ez dute beren kabuz lanik egiten.

– 2. mailako ekoizpen-laguntzailea:

Kategoria honetan sartzen diren langileek beste kategorietako lanak egiten laguntzen dute, edo lan erabat mekanikoak egiten.

– Ekoizpen-mandataria:

Langile horien lana da bulego barruan eta kanpoan mandatuak egitea; hala nola, gutunak eta dokumentuak jasotzea eta kargak eta deskargak kontrolatzea, bai eta buruek agindutako bigarren mailako beste lan erabat mekanikoak egitea ere.

III) Merkataritza.

– Merkataritza-saileko burua:

